

2026KO OTSAILAREN 23KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko otsailaren 23an, arratsaldeko bos-tetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 4 zenbakidun zerrenda, HAMAHAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA BEDERATZI euro ETA HOGEI ETA SEI zentimokoa (17.909,26 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- GURUTZE KALEKO 3 ATARIKO AURREKALDEKO BERRURBANIZAZIO LANAK BURUTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Gaia aztertu ondoren gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioa hartu du:

- Lanak prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

III.- ARKITEKTURA, HIRIGINTZA ETA OBREN ARLOAN LAGUNTZA TEKNIKOA ETA AHOLKULARITZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Gaia aztertu ondoren gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioa hartu du:

- Esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

IV.- GOIMEN ELKARTEARI 2026KO EKARPENA.-

GOIMEN Elkarteak horretarako bidalitako idatzi bidez, 2026ko Udal ekarpenaren eskaera egin du.

Idatzi horretan esaten du GOIMEN Elkarteko Gobernu Batzordeak, 2025eko

apirilaren 10ean egindako bileran, 2026 urteko udal kuota proposamena onartu zela.

Hori horrela Lazkaoko Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 9.277,45 €-koa da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, ahobatez, GOIMENi 2026ko Udal ekarpen hau egitea onartu du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 1.5 ordutik 7.5 ordura, otsailaren 2tik aurrera, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena %35koa da.
- 11-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 11 ordutik 6 ordura, otsailaren 3tik aurrera. Onuradunaren ekarpena %15koa da.
- 18-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 10 ordutik 20 ordura, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena %24koa da.
- 19-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 10 ordutik 4 ordura, otsailaren 1etik aurrera. Onuradunaren ekarpena %15koa da.
- 21-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 6 ordutik 10 ordura, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena %61koa da.
- 24-11-12 zenbakidun esped.: etxeko laguntza murriztea astean 17 ordutik 10 ordura, urtarrilaren 29tik. Onuradunaren ekarpena %15koa da.
- 24-11-18 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea urtarrilaren 29tik, onuradunak eskatuta.
- 25-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua alta ematea otsailaren 2tik astean 4 orduz.. Onuradunaren ekarpena %100 ekoa da.
- 671.5 / 25-11-07 / 20-11-06 / 20-11-07 / 25-11-11 zenbakidun espedienteak: Zistertar monjak. Etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 46,5 ordutik 54 ordura. Ordu hauek bost pertsona hauei laguntza pertsonala emateko da ondorengo ordutegi honetan: Goizetan 8:00-13:30 Arratsaldean 15:00-16:30 eta Iluntzetan 18:15-20:15

Familia laguntzak.-

- 25-15-01 zenbakidun esped.: Bi hilabeteko balorazio familia esku hartzea 1.950 €koa da.
- 25-15-01 zenbakidun esped.: Sei hilabeteko balorazio familia esku hartzea 6.570 €koa da.
- 25-15-02 zenbakidun esped.: Bost hilabeteko balorazio familia esku hartzea 5.295 €koa da.
- 26-15-01 zenbakidun esped.: Hasierako ikerketa balorazio familiarra 1.260 €koa da.

Garraiorako laguntzak.-

- 26-17-01 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko 447,70 €, 40,7€ hilean abuztua izan ezik.
- 26-17-02 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko 447,70 €, 40,7€ hilean abuztua izan ezik.
- 25-14-01 zenbakidun esped.: Urtarrileko gastuak Gizakia Helburura joateko 300 €ko laguntza ematea.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

2026. urterako Lazkaoko Gazte Laguntzaileen bekak eskatzeko deialdia egitea.

Beka hauen oinarri arautzaileak 2016ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran onartutakoak dira eta 2016-03-30eko GAOn argitaratu ziren.

- Eskaerak aurkezteko epea 2026eko maiatzaren 30 artekoa izango da.
- Gehienera 2.000,00 €-ko diru laguntza onartuko da pertsonako.
- 2026 urteari dagokionean aurrekontua 2.000,00 €-koa izango da.

Kulturako eta denbora libreko jarduera eta ikastaroetako tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-24-01 zenbakidun esped.: urtarrileko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-02 zenbakidun esped.: urtarrileko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 29,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-04 zenbakidun esped.: urtarrileko robotika ikastaroa ordaintzeko bi seme alabei 40,00 X2 = 80 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 26-24-01 zenbakidun esped.: urtarrileko robotika ikastaroa ordaintzeko bi seme alabei 40,00 X2 = 80 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

V.- BERDINTASUN ARLOKO LAGUNTZAK

Berdintasun Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei Sormen lehiaketako saridunen bonoengatik.-

Lazkaoko Udalak 2025 urtean antolatutako Sormen lehiaketa dela eta, saridunek herriko dendetan gauzaturiko erosketen fakturak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokienei ordainketa egitea:

MERKATARIA	ZENBATEKOA
Lazkaoko Ikastola (1.saria A kategoria)	120 €
Lazkaoko Ikastola (2. Saria A kategoria)	80 €
Lorena Pujana Conde (1. Saria B kaegoria)	120 €
Lazkaoko Ikastola (2. Saria B kategoria)	80
GUZTIRA	400 €

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.